

Pello Sarriegi Larburu (1906-1968). Herriko semea: antzezle, drama-idazle eta euskal eragilea

Batetik, bere antzerki-lanetan ez du bere bizitzaren arrasto handirik utzi Pello Sarriegik, bestetik, bere bizitzako nondik norakoak ondo baino hobeto ezagutuko zituen bere anaia Felipe duela urte gutxi batzuk hil zen eta hortaz, esan genezake hainbat zertzelada berekin eraman zituela drama-idazle hernaniarrak. Haatik, Zikuñagako paper-fabrikan lankide izan zuen Imanol Larretxeari eta Pello Sarriegiren iloba Joxe Antonio Sarriegiri esker¹ baditugu hainbat jakingarri bilduak. Ale ditzagun!

PELLO SARRIEGIREN BIOGRAFIA. Non jaio zen? Hernaniko Urumea kaleko hogeita hirugarren zenbakiko etxean (*Andre kale edo Kardaberaz kalean*), Kardaberaz jesuita jaio zen etxearen aldamenekoan, kalean gorago²; biak ere elkarren ondoan jaioak leku aldetik, eta denborari dagokionez, berrehun urte geroago Pello Sarriegi.

Zazpi senide eta gurasoak elkarrekin bizitzeko etxe txikitxoak izanik, Kale Nagusiko behealdeko etxe batera aldatu ziren sarriegitarak. Pello Sarriegik, errioxar jostun Candelas Benitoren ezkondu zenean, osteria Kardaberaz kalera jo zuen eta Plaza Berria baino goraxeago bizitzen jarri ziren senar-emazteak. Gurasoak ez zituen hernaniarrak, aita altzatarra eta ama urnietarra, baina Pello Sarriegi bera hernaniar peto-petoa!, Hernaniko alde zaharrekoa jaiotzaz eta bizitzaz.

Gorago esan dugu jakingarri asko berekin eraman zituela Pello Sarriegik. Seguru samar dakiguna da Hernanin ospitala deitzen zitzaion Erruki Etxean, erreketek herrian sartzeko zeuden garai inguruan, bertan jeltzaleek edo errepublikaren aldekoek egin zuten bileretako batean bere lagunetako bati tiroak alde egin eta hankarte inguruan jo zuela. Giltzurdin bat kendu zioten, eta gerra garaian jasandakoen ondorioz osasuna galdu zuela jakinarazten zidan Zikuñagako paper-fabrikan lankide izan zuen Imanol Larretxeak. Ukondoko mina eta osasuna galduxe.

Iloba Antonio Sarriegiri galdetuta, hark esaten zidan bere osaba erreserbatua zela eta horrelako konturik ez ziola inoiz entzun.



Horretarak gero, dakigun apurra da segur aski nazionalisten bataloien batean ibili zela, preso hartu eta Iruñeko San Kristobalera eraman zutela³, eta ibilera horiek osasunean arrasto txarrak utzi zizkionela. San Kristobalen 1936-1940 gerra-urte horietan egotea urte banaka batzuk geroago nazien kontzentrazio-esparruetan egotearen antzekoa izan behar zuen, bertan egondakoen lekukotasunen arabera. Hil ere gazterik egin zen, hirurogeita bi urte egin eta hamabost egunera.

¹ Imanol Larretxea eta Antonio Sarriegiri biei eskertzen diet emandako laguntza, eta Imanol Larretxeari bereziki, asko lagundu baitit.

² Pello Sarriegiren iloba Antoniok adierazi zidan kalearen bestaldean jaio zirela esaten ziola Felipe osabak. Erregistro zibilean agertzen denaren arabera, Kardaberaz jesuita jaio zen aldameneko etxean jaio zen Pello Sarriegi, kalean gorago. Orain ehun urte Urumea kaleko etxeak -gaur Kardaberaz-, barrukoak bakoitiak eta kanpokoak bikoitiak ote ziren, orain ez bezala? Familia nahastu ote da?

³ Felix Sierrak eta Iñaki Alforjak argitaratutako *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas*, Pamiela, Iruña, 2005; liburuari erantsitako CDan espetxe horretan egondako 4.943 presoren izen-abizenak daude; 2.639.a gure Pello Sarriegi Larburu.

Zikuñagako paper-fabrikari aritu zela esan dugu. Beti han jardun al zen? Lanean, orduan egin ohi zen bezala, hamalau bat urterekin hasiko omen zen *Fundiciones del Norte*-n, Floridan zegoen fundizioan, moldekatzaile lanean, bere aita eta Felipe senidea bezala. Orduan metalurgiak garrantzi handia zuen, me-talurgialariek zuten bezala. *Fundiciones del Norte* delako horrek fabrika garrantzizkoa izan behar zuen herrian. Zergatik igaro zen Zikuñagako paper-fabrikara?

Gerra ondoren ez zuen galdategian jarraitzerik izan, galtzaileen alde ibili zelako gerran. Don Felipe Peñaiba gerente zuen paper-fabrikak, beste enpresa askok ez bezala, Francoren aurka ibilitako jeltzale eta errepublikano asko hartu omen zuen, eta haien artean Pello Sarriegi *Las filieras* paper zelofana egiten zen sailean, arduradun lanean. Gero Zikuñagako jaiak-eta antolatzen Pello Sarriegi eta Juanito Olano-eta ibiltzen omen ziren.

Jeltzale zela garbi dago. Ez du ematen politikan arduradun handiko kargurik izan zuenik, badiirudi gehia-

go ibili zela antzerkigintzan eta euskal kultur-gintzan.

Dantzari aparta, bere arreetako bat zen Joxeparekin egiten omen zuen dantza askatuan, eta bikain egin ere. Orduan ohitura handia omen zegoen herriko musika-bandan parte hartzeko musika-tresna bat edo beste joaz, eta Sarriegitarren familiak behintzat asko lagundu zion herriko musika-bandari: anaia zaharrena Joxek dunbala eta bonbardinoa jotzen zituen, Pello antzerkidazleak txindatak, Felipek saxofoia eta Ramon gazteenak klarinetea; hiru arreba zituen, Joxepa eta Maria dantzari onak eta Prudentxi, beste era bateko dantzaria, famatua herrian. Guztira, beraz, zazpi senide ziren, eta Pello bigarrena. Gurasoei buruz dakigun bakarra da, aita Inazio Sarriegi Zubeldia Altzako Oleta etxekoa zuela eta lanbidez metalurgialari urtzailea; eta ama berriz, Dolores Larburu Nazabal, urnietarra eta etxeko-andrea.

Ikasketa kontuan autodidakta izan zen Pello Sarriegi. Iloba Joxe Antonio Sarriegik adierazten zidanez, orduko gehienak bezala Biteri eskolatan ibiliko omen zen hamalau urte arte edo, gero haren aita Inazio eta Felipe anaia bezala, *Fundiciones del Norte* lanean hasteko.

Berak familiarik izan al zuen? Gerra aurrean ezkondu omen zen Candelas Benito errioxar jostunarekin. Alfaro edo ingurukoak izan behar zuten hiru ahizpa benitotarrak, gero jostundegia eduki zutenak Hernaniko Kardaberaz kalearen goi aldean. Pello Sarriegik eta Candelas Benitok ez zuten seme-alabarik izan eta Zizurkilgo Fraisoroko inklusatik Vicente Vazquez bost urte inguruko mutikoa ekarri bide zuten, hernaniar denentzat Jesus Mari Sarriegi izango zena aurrerantzean.

Pello Sarriegi
(2.a ezkerretik)
bere senide:
Felipe, Maria, Joxe
eta Ramonekin.
Joxepa eta
Prudentxi falta dira
zazpi senideak
osatzeko.



Toribio Altzagaren
Bost urtean
antzeztzen
Hernaniko
Zintzotasuna
zineman. Ezkerretik
eskuinera: Jexux
Eiguren, Pello
Sarriegi, Maria
Luisa Zubiria eta
Kristina Eiguren.
Antzerkiaren lehen
ekitaldia.

ANTZERKIGINTZA. Gerraurrean badakigu Hernaniko Eusko Batzokiaren barruan antzezle lanetan aritu zela. 1933-34 bitartean Gipuzkoan bostehun bat euskal antzerki emanaldi egin omen ziren, eta mugimendu horren barruan Hernanin ere bai, eta gure Pello Sarriegi ere partaide, antzezle gisa.


Gerraondoa berriz, Toribio Altzagaren *Bost urtean eta Ezer ez ta festarekin* ekin zioten, 50eko hamarkadaren erdialdera, Pello Sarriegik *Goi-Alde* izenez bataiatutako antzerki taldeko kideek, gerraurrean antzeztzen ibilitakoek eta gazte antzezleri agertokian estreinatu gabeek.

Bi ekitaldiko antzerki serio samar horretan diruzalekeria eta aberastasun burugabea salatzen dira: tesi nagusia da aberastasuna ez dela txarra, Jainkoak bere eskuzabaltasunagatik hainbati emana edo onartua dela, beti ere ondo erabiltzekotan, hots, lagun hurkoari laguntzeko asmoz egindako obrekin uztartzen bada; txarra dela, aldiz, eskrupulu, kontzientzia kristau eta zuzentasunik gabe egindako diru-biltze ustela, harrokeria eta pertsonaren hondamen morala dakarrena. Eta Pello Sarriegik gorpuzten duen *Lukax* pertsonaia zalekeria galgarri horren sarean erortzen da dirua egiten hasten denetik. Etxea errentan emateko eta hartzeko egin beharreko kontratuetan bitarteko izateagatik ehu-neko bat kobratuz bizi den *Lukax*, lehen mundu gerra garaian, gai horretan sortzen den espekulazioaz baliatuz aberasten da, eta horregatik harrotzen da eta diruzalekeriara da jotzen, eta tabernarik tabernako bizitza arlotera; horrela, beraren emazte xuxena dohakabe bihurtuz, diru guztiak gorabehera.

Toribio Altzagak elkarriketak eta agerraldiak ongi josten ditu, eta pertsonaien aldaketa morala antzerkiratzeko bi ekitaldien artean bost urteko tartea

sortzearen teknika baliatzen du, agerraldi berbera edo bertsuetan pertsonaien aldaketa moralak azaltzeko eta antzezteko. Era horretara, pertsonaien bilakatze moral hori agertokian garatzen baino gehiago, pertsonaien bi egoera moral desberdinak taula gainean dira kontrajartzen. Antza denez, pertsonaien bilakaera agertokian agertzea ez da garrantzizkoa, bi ekitaldi kontrajarrien bidez ongiaren eta gaizkiaren arteko diferentzia eta aldea nabarmentzea da axola handiena duena.

Elkarren aurkako kontrajartze moral horiek, eta ekitaldien arteko denbora-tarteen teknika erruz erabili ditu Pello Sarriegik. Esate baterako, *Etxerako...nor?* antzerkian, Jazinto Karraskedorekin batean egindakoan, fundizioko nagusiaren seme



Etxerako... nor?
Antzezlan (1964)

Toribio Altzagaren
Ezer ez ta festa
antzeztzen
Hernaniko
Zintzotasuna
zineman 1955
inguruan. Ezkerretik
eskuinera: Manuel
Mujika, Jexux
Egiguren, Kristina
Egiguren, Iñaki
Zubeldia, Pello
Sarriegi aurreko
mantalarekin, Inazia
Goñi, Antonio
Arbelaitz eta Migel
Toledo zuzendaria.



alfer eta neskatala zintzo engainatzailearena dagien pertsonaia nagusia Caracasen ematen dituen zazpi urtean onbideratzen da, oso adierazgarriro, nekazaritzak ekarriarik bide zuzenera, eta antzerkiak dituen bi amaieratako batean neskatala zuzen orbangabearekin ezkontzeko duina egiten. Beste amaiera goibelago bat badu antzerki horrek, eta ez da Pello Sarriegiren antzerki bakarra bi amaiera dituenena. Baina utz dezagun hori geroagorako eta beste adibide bat eman dezagun ekitaldi artean urteak igarotzearen teknika ilustratzeko.

Horretan gailurra *Biotzaren neurria* deritzanean jotzen du drama-idazleak. Bertan lehen ekitalditik bigarrenera zortzi urteko hutsunea dago, eta bigarrenetik hirugarrenera hogeita seikoa; hortaz, antzerkiaren denboran hasieratik amaierara hogeita hamalau urteko tartea dago. Urte horiek guztiak beharrezkoak izan dituzte pertsonaiek, nork bere bekatuak edo ekintza gaiztoak ordain ditzan, eta antzerkiaren azken ekitaldia gertatzen den eguberrietan, oso adierazgarria da korapiloaskaera eguberri garaian egitea, drama, oinazea eta sufrimendua sortu dituzten korapiloak askatu eta zuzenbidean jartzeko, esplizitoki amaiera zoriontsura iritsi gabe baina hura behintzat iradokiz bururatzeko. Txarkerien katea abian jartzen duen hasierako azioa badakizue zein den? Baserriko seme zintzo batekin sei urte ibili ezkongaietan, eta kalera ezkontzeko irrikak hartaraturik, kaleko mutil batekin, kaletar alproja-engainatzaile batekin hasteko baserriko seme zintzoa uzten duen neskatala baserritar burugabea, trukean askoz mutil alproja eta aldrebesagoa hartzen duena. Neskatala burugabe horrek larrutik ordainduko du egindako *bidegabekeria*, eta azkenean ibili-ibili eginda kaletar alproja burugabe horrek ere bai, gorago esanda bezala eguberrietan, zehatzago, Gabon gauean.

Baserrira kalearen aldean gora jartze hori, kristau balioek santuturiko baserri-bizitza kaleko diruzalekeriari eta balio kristauen galerari kontrajartzea ez dira noski, Pello Sarriegik asmatuak, baina bai, hark arrunt erabiliak. Gerraurrean, oker ez banago, arrakasta aski izan zuten Jazinto Karraskedoren *Etxe aldaketa* eta *Garo-Usaia* antzerkiek, eta gerraurrean ez ezik gerraondoa ere antzeztu zuten Donostiako *Jarrai* antzerki taldekoek *Etxe aldaketa* 1959an, eta *Garo Usaia* Donostiako *Iztundekoek* 1964an. *Garo-Usaia* Txomin Agirrerren *Garoa* eleberria antzerkirako egokitua da, eta bertako pertsonaia-zerrendari begira jarrita ikusten dugu pertsonaieetatik hiru honako hauek direla: *Moxolo* kaletar dirudun gazte harroa; *Martin* kaletarke-riak jotako iloba gaztea; eta *Pello Odolki* kaletar gazte kirtena. Arantzazuko Santutegian inprimatu zen osteria 1968an, liburuxka gisa.

Gatozen *Etxe aldaketa* antzerkira: bertan, baserriko senar-emazte adinekoak kalera joatera beharturik dira seme-alaba gazteek hartaraturik. Berak baino lehenago kalera jaitsitako auzotar batek gisa honetan adierazten die senar-emazte adinekoei kalea zer den: *Bai al dakizute nere senarra zanak kalea zertza, esaten zuen?: "Kalea, kalea...gazteen amets-eragile ta zorapena aizen kalea zenbati iruzur egin diek, barruan daramakan lander-atseka-bearen arra, azal-uts dan edergariz apaindurik estaltzen ain ongi dakikan gezurti orrek!" Ori da kalea; guzia gezurra ez ba'da ere, geiena bai behintzat... Klean geiena gezurra da, bai...Begira: onako neskatz oiek, aral, onen apain ta dotore, aberats antzo agertzen dira. Baña guzia gezurra; alako dendatan bi illabeteko ogiak zor dituztelako... Aloko gizon ura, aral, arren zintzo ta etxekoi ba'dirudi ere ezta egia; gau-ordueta maiztxo ikusten bai-ta alderoka etxeratzen... Ta, orroko beste jaun aundiki oriek, aral, elizatik ez al dira irten?...Bai, oso elizkoiak eta kristau onak dirudite; baña, bai zera!, berak aberats okituak izaki, aien beargiñak, zor ta lor, gosez bizi diralako... Ori da kaleko egirik garratzena: mixeriya, mixerija...! Geigo jakin nai al dezute? -Ez, ez; naikoa da, Pantxike!*

Orain, berriz, etorriko gara eguberriak antzerkieta-ko korapiloak askatzeko data egokitza hautatzearenera. Pello Sarriegik Hernanin antzerki-idazten ziharduen garaian, Donostian bizi zen Nemesio Etxaniz azkoitiarrak hiru antzerki zituen jada eginak eguberri garaian garatzen eta erabakitzen zirenak: *Maite ere neurriz*, *Gabon Zauria*, eta *Zotzean bizia*. Data hori berak erabakia baino gehiago Arantzazun 1956an egin zen antzerki sariketarako epaimahaiak proposaturikoa zen. Gogora ekar beza irakurleak garai hartan Espainian eta ondorioz Hego Euskal Herrian bizi zen giro sozial-erlijiosoa, politika nazional-katolizistak harrotu eta puztua. Bada *Maite ere neurriz* dramaren, senarrak emaztea etxetik botatzen du, jeloskorkeriak jota, eta kalera botatako emaztea eskale-itxuran itzultzen da etxera Gabon Gauean. Pello Sarriegiren *Biotzaren neurriaren* eta Nemesio Etxanizen *Maite ere neurriz*-en artean badaude parekotasun eta sintonia nabarmenak.

Goi-Alde antzerki taldeak, bestalde, hortxe 1957-58 inguruan antzeztu zuen antzerki laburren bat Gabon Gauean gertatzen zena, eta argumentutzat senarra espetxean zuen emaztearen bihotzeko samina goxatzen ahalegintzea zuena. Antzerki horretan Pello Sarriegik aitaren papera egin zuen, alaba bizi-alarguna, senarra espetxean zuen alaba eguberri giroan alaitu nahi zuen aitarena, Pilar Artolak⁶ emazte errukariarena. Gogora bestalde, Donostian urtean hiru euskal antzerki egiten zirela: Do-

⁴ Antzerki 25'en zenbakia, 1934 ilbeltza, 17. orria.

⁵ Antzerki hau Imanol Larretxeak ere gogoan du. Beste antzerki bat Pilar Artolak oso gogoan duena *Andre Zurrumbilo* zeritzana da. Eskerrik asko, Pili, emandako laguntzaren aldera.



Pello Sarriegiren
Jokaldi txar bat
antzezten
Hernaniko Aitor
zineman 1967ko
udaberrian:
Ezkerretik
eskuinera: Jexus
Egiguren, Jexux
Mari Olano, Imanol
Larretxea, Pilar
Artola, Kontxi
Legarreta, Begoña
Perurena eta
Kristina Elozegi.

nostia egunean, iraileko euskal jaien barruan eta eguberri bezperan, Santo Tomas egunean, egun aproposa eguberrietakoak antzezteko.

JOKALDI TXAR BAT DERITZAN DRAMA. Era-ginak eragin eta bereizitako antzerki maisuak gorabehera, Pello Sarriegik lortu zuen *Jokaldi txar bat* dramarekin Donostiako *Agora Saria* eskuratzea 1966an, eta *Goi-Alde* taldeak Hernanin (1967ko udaberrian) eta Errenterian (1968ko otsailan) ematea, arrakasta aski politarekin.

Sarrera orijinala du: dramaren protagonista nagusietakoak diren aita eta semea xake jokoa ageri dira, eta aita zaldia mugituz jokaldi txar bat egin izanaren ondorioz xake-mate egiten dio semeak, eta aita egindako jokaldi txar hori iragarle gertatzen da, hainbat urte lehenago aita eta ama dirua lortzeko egin zuten txarkeriaren iragarpena. Delako jokaldi txar, ezmoral hori suspense-dosi txikietan ezkutatuz eta agertuz egituratzen da antzerkia, hiru ekitalditan zehar. Antza denez, bazekien Pello Sarriegik xake-jokoa eta Arturo Pomar xakelari mallorcar famatua Hernanira etorri zenean parte hartu zuen haren aurka jokatutako partidetan.

Antzerkira etorritik, testuak antzerkiratzen duen mundua gorago aipatu ditugun antzerkietan irudikatzen denetik ez da aldentzen; hemen ere, diruzalekeriak eragindako jokaera moralgabekia da antzerki-gidoia sorrarazten duena, euskal kristau balio tradizionalak dira hautsi behar ez direnak bizitza

duina bizitzeko, eta ematen dion amaierarekin gurasoek egindako bidegabekeria euren semeak ordaintzen du kasu honetan eta bidegabekeria jasandako familiako alabak. Berez, amaiera bat baino gehiago idatzi zituen; ez dakiguna da, lehenbizikoa zein zen, aldaketak zerk edo nork eraginda egin ziren, eta azkenean antzokietara eraman zen bertsioa finkatzerakoan Pello Sarriegik berak zer esku-hartze izan zuen.

Gatozen goiko baieztapenak frogatzen ahalegintzera. Antzerkian, jokaldi txarra egindako aita emakume dirudun batekin ezkontzea proposatzen dio semeari, eta bien arteko solasa honela tolestatzen du drama-idazleak: *-Karmen gogoko zaiguk-ba!; -eta zergatik izan bear du, Karmen?; Etxe ortan diru asko zeok.; -Dirua beraz? Zeorri entzuna nago oien diru-egiteko modua nolaz izan dan; -Orain beintzat utzi akiok nolaz egiña dan; orrek etziguk ajolik.; -Ez, e? Jaungoikoaren legeak baztertuak izan arren ere, ez?; -Baztertu ez, baña..., Ba dakik gurasoak bere umeak ikusi nai izaten dizkik. Hogeita hamar urte beteak dakaizkik; eta gañera, gu ere aurrera gijoatxik; (...) Nik ez diot begiratuko dirudunari, ez duenari ere ez. Nik nai dedana da, nere estualdi ta larrialdietan nere ondoan jarraitu ta lagunduko didana. Une ortan nere oldozpen txarrak, bere itz eztitsu ta maitasunarekin itzaliko dituen. Itz batean! Emakume zentzuduna. Ori izango litzaidake neretzako aberastasunik aundiena⁶.*

Emazteak nolakoa izan behar duen adierazi ondoren, gizartean emakumeari zer paper dagokion

⁶ Argitaragabea. Antzele izandako Mari Angeles Legarretak utzitako kopia baliatzen dut. Esker mila Mari Angeles Legarreta, emandako laguntza handiagatik.

azaltzen jarraitzen digu idazleak, oraingoan goiko elkarizketako maiorazkoaren bi arreben arteko solasaldiaz ballaturik: kontu egin, pertsonaia positiboa, oraingoan itsua dela, fisikoki akatsak dituen baina moralki zentzudunena. Ikusten duena hasten da, itsuak jarraitzeko:

-Orra ba! Ik ere lengo gizaldikoa dirudin. Orain etzegon gure amonen garaieko konturik. Emakumeak nunai zeukan egontokia gizonen antzera. Ta zergatik ez?; -Gauz batzuetan gizonarekin berdintzea ondo zegon. Bañan zuek nai dezuten azkatasun ori ezin liteken.; -Zergatik, ez?; -(Goxo-goxo) Gizona, gizona den. Emakumea berriz, emakumea; bakoitza bere tokian. Begira, Juli! Nik ez diñat ikusten, nagon bezela nagolako; bañan ik ikusten den guzia gizonak sortu ta egiña den. Lan-tokiko buru ta lan egiten duna ere, gizona den.; -Urte askoan jarrai dezatela horrela.; -Noski. Zueiri zer ajola zaitzute, ba, ordubietan ala iruretan etxeratzeak; egoardi arte lo egoten zerate-ta.

Antzerkiko lehen ekitalditik bigarren ekitaldira igaroz, neska-mutil arteko maitasun-istorioaren hasiera marrazten digu, elkar-gustatzea eta maitemintzea, Hernaniko Zikuñaga auzoko jaiak aitzakia direla.

Lehenbizi, erromeriaren esanahia argitzen digute pertsonaiek: -Erromeria, aberri guzietan egiten dek. Obeagoa edo txarragoa. Bañan, guztik ba ditek beren sustraia; -Izango ez ditek, ba? Bere jakkerak eta oiturak, erri bateko izaera agertzen ditek; -Alaxen dek!.

Gero, protagonista gizonezkoak emakumea begiz jotzen dueneko ekartzen du solasera: - I, Leandro! Nor da mezetan nere aldamenean egon dan neskati polit ura? (...) Zeñen ederki erantzun duen meza guztia euskeraz. Eta azkenean abestu dan abesti goxo ori?; -"Agur Jesus'en Ama" dek abesti ori; -Abestuaz, bere begiak josita zeuzkaken Ama Birjiña'gan; -Orduan, pozik egon aiz?; -Bai, motell!.

Hurrengo, neska-mutilen arteko lehen elkartzea. Mutilak neskari: -Ermitatik irteeran ikusi zaituztegu, ta atzera barrena sartu zerate; -A!, bai! Eliz-atarian

dagon emakumeari argizaia erosita; (...) Sinismenez egiten diran eskeintzak, beren ordañak izaten dituzte; (...) Begoña! Ama Birjiña'ri eskerrak eman bearrean naiz; -Zer, ba?; -Gaur elizan, zure aldamenean jarri nauelako; (...) -Ezagun da, bai, neska bakoitzari itz berriak esaten oitua zaudela. Zuek goi-mallakoak, errez moldatzen zerate guri ezer sinistearazitzeko; aukera izaten bait dezute.

Irakurleak juzga beza maitemintze ideal idealista hau!

Bestalde, hizpide hau aprobetxatzen du benetako aberastasuna zer den azaltzeko. Kontu egin antzerkian, mutila Deustuko unibertsitatean, Valladoliden eta Londresen ikasitakoa dela, eta neska notario baten idazkari eta piano irakasle. Gizona gorago, emakumea apalago baina oso duin. Neska hasten da: -Zu, diruduna, eta, ni?; -Aberatsa; -Eteban!; -Bai. Aberastasuna zerekin daramazu, ta ori ez da diruarekin erosten; -Etzazu orrelakorik esan!; -Dirudun guztiak ez dira aberatsak. Nola egin duten, lagun urkoarekin zerbait izan ote-duten, eta abar; -Ortan arrazoi dezu. Guk etxean ikusi degu ondo asko, gizon bat dela merio; -Ez uste, orduan, gizon ori lasai bizi danik dirua izanagatik. Ari ere etorriko zaio aitortu bearra, eta orduan izango dira lanak. Ordaindu nai, ta eziñ; -Estutasun ortan iñoiz arkitzen ba-da?; -Ez ezazu uste! Kontzientziak ere, bere neurria ba du.

Toribio Altzagaren Bost urtean antzerkiaren tesia laburbildua lehenbizi, eta bigarren zatia antzerkiaren amaierara bultzatzen gaitu. Jokaldi edo azio txar hori egin duena mutilaren aita da, eta neska berriz, bidegabea jasan duten biktimen alaba. Zer amaiera eman dramari? Bi irakurri ditut nik.

Batean neskak ikusten du zer gertatu den, mutilak ez duela gurasoek egindako txarkeriaren errurik eta hori alde batera utzita prest agertzen da maitasun harremanari segida emateko. Antzokira eramane zuten amaieran, aldiz, mutilak eten egiten du harremana, ikusita ez duela neskarekin ezkontzeko inolako esperantzarik. Amaiera goibela!

Gorago ere esan dugu ez dugula informazio aski gauzak nola joan ziren argitzeko.

ESKER ONA

Pili Artola
Imanol Larretxea (†)
Mari Angeles Legarreta
Jexux Mari Olano
Joxe Antonio Sarriegi
Iñaki Zubeldia